

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

2019ko OHZren ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Jendeari jakinarazten zaio 2019ko urriaren 7tik aurrera kobratzeko moduan jarriko direla, borondatezko epean, honako hauen 2019ko ordainagiriak:

— Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

1. ORDAINTZEKO EPEA

A) Borondatezko aldia: 2019ko urriaren 7tik abenduaren 13ra, biak barne.

B) Betearazte aldia, ehuneko 20ra arteko errekararekin: 2019ko abenduaren 16tik aurrera betearazte aldiko errekarak, premiamendu murriztukoak eta arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA

A) Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapidetik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Dena den, zergadunek jakin bezate ordainketa helbideratzearen altak eta aldaketak Udalean izapidetu behar direla. Ordainagiriak 2019ko abenduaren 10ean kobratuko dira.

B) Helbideratu gabeko ordainagiriak: zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dituzte, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2019ko irailaren 25a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO